elkar-lan

Kooperatibak sustatzeko elkartea

kooperatiba bat eratzeko gidaliburua

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

I. introducción 2

II. kooperatibaren enpresa-bideragarritasuna 3

III. kooperatiba sozietate-ikuspegitik 6

IV. eraketa-prozesua 14

V. udal-baimenak eta beste administrazio-izapide batzuk 16

VI. kooperatibaren zerga-arloa 20

VII. gizarte segurantza kooperatiban 27

VIII. laguntza publikoak 31

IX. Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa 36

X. Elkar-Lan S. Coop., kooperatiba-elkarteak sustatzeko sozietatea 38

XII. koopeartibei buruzko helbide interesgarriak 40

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

I. introducción

Gida labur honen bigarren argitalpen gaurkotu hau nornahirentzat da, baina batez ere, enpresaburu edo ekintzaile-taldeentzat, beren enpresa eraldatu edo berri bat sortu nahi badute, betiere izaera demokratikoa, solidarioa eta parte-hartzailea izango duena. Horiei guztiei Kooperatiba Elkarte bat zer den adierazi nahi zaie: pertsonen sozietate-forma bat, bazkideei lanpostuak sortu eta finkatzeko aukera ematen diena, enpresan hartzen diren erabaki guztietan zuzeneko partaideak izanik.

Dena den, Kooperatiba sortzetik bertatik da enpresa, eta horregatik uste dugu, eratzera iritsi baino lehen, bideragarritasun-proiektu bat egin beharko litzatekeela, hasi nahi den negozioaren egingarritasuna egiaztatzeko.

Kooperatiba Elkartea, sozietate guztiak bezala, berariazko araudi batek eta bere neurriko Estatutu Sozialek arautzen dute, eta hausnarketa egitea komeni da xedapen-gaietan, bere bazkideen autonomiak estaldura duenetan, sustatzaileei ematen zaizkien aukerei buruz.

Kooperatibak tratamendu berezia eta berariazkoa du, bai zerga-arloan eta bai Gizarte Segurantzarenean, bere izaera juridikoaren ondorioz. Tratamendu hori, labur bada ere, Gida honetan azaltzen da eta sustatzaileek ezagutu egin behar dute.

Halaber, egokia iruditzen zaigu azaltzea, behar beste zabaldu eta jakinarazteko, Kooperatibek eta bazkideek eskura ditzaketen laguntzak. Horren haritik, gaur egun eskaintzen direnak jaso dira hemen, espezifikoak kooperatibentzat eta beren bazkideentzat.

Azkenik, hainbat erakunde publiko eta pribaturen helbideak agertzen dira, oso erabilgarri izan daitezkeelakoan Kooperatiba Elkarteak sortzeko interesa duten guztientzat.

Dena den, Gida honen eduki osoa Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioaren web orrialdean aurki daiteke (**www.euskoop.org**), baita ELKAR-LAN, S. COOP. Kooperatibak Sustatzeko Sozietatearen web gunean ere (**www.elkarlan.coop**).

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

II. kooperatibaren enpresa-bideragarritasuna

Kooperatiba enpresa bat da eta, horregatik, bere sustatzaileek, Kooperatiba eratu aurretik, dokumentu bat egin beharko lukete Bideragarritasun Planarekin, bertan aztertuz abian jarri nahi duten proiektu edo egitasmoa.

Bideragarritasun Plan horretan, gutxienez, ondorengo puntuak sartu behar dira:

A. NEGOZIOAREN DEFINIZIOA

Orokorrean, enpresak zertan jardungo duen adieraztea.

B. MERKATARITZA-AZTERKETA

Azterketa hau egiteko, proiektu bakoitzean behar den sakontasunaz, ondorengo puntuak hartuko dira kontuan:

- Produktuaren definizioa: Zehatz-mehatz azaltzea enpresak salduko dituen produktuak eta zerbitzuak, horiek termino fisikoetan eta teknikoetan azalduz, eta produktu hori erosten dutenean bezeroek balioesten dituzten puntuak azpimarratuz.

- Merkatuaren Ezagutza: Enpresa berriak atenditu nahi duen merkatu-bolumena balioesteko, eta gaur egun merkatu-bolumen hori nola atenditzen duen balioesteko. Halaber, hausnarketa egin behar da egon litezkeen merkatu-segmentu berriei buruz (kontsumitzailearen gustuen edo erosteko ahalmenaren arabera, etab.).

- Lehiakideak ezagutzea: Identifikatu ahal diren neurrian, Kooperatibaren egungo lehiakideak zein diren azaldu behar da, eta lehiakide horiek etorkizunean egin ditzaketen produktuak/zerbitzuak.

- Salmenten Plangintza eta Kontrola. Atal honetan helburu kualitatiboak finkatu behar dira merkataritza-arloan garatzeko (.....(e)ko eskualdean merkataritza-sarea ezartzea, ...(e)n bezero berri bat lortzea), baita salmentetan helburu kuantitatiboak ere jardueraren lehenengo hiru urteetarako;

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

lehen urterako hileroko salmentak zehaztea komeni da, kobratzeko erarekin batera.

C. EKOIZPENAREN AZTERKETA

Atal honetan bi gai garatu behar dira :

- Ekoizpen Prozesua zehaztea: Produktua/zerbitzua gauzatzeko prozesua zehatz-mehatz azaltzea, ekoizpena hasten den mementotik bezeroarengana iritsi arte. Prozesu horren antolaketa.

- Ekoizteko ahalmen edo gaitasuna: Enpresaren ekoizpen-ahalmenak merkataritza-azterketan egindako salmenta-kalkuluen araberakoa behar du izan.

D. EROSKETEN AZTERKETA

Enpresak garatuko duen erosketa-politika aztertu behar da, lehengaiei, kontsumoko materialari eta azpi-kontratazioei dagokienean. Egon baldin badaude, garapen hori hornitzaile-kopurua, ordaintzeko era eta merkantziak emateko epea zehaztuz egin behar da.

Izakinak behar izanez gero, produktu burutuak, fabrikazio bidekoak eta lehengaiak biltegiratzeko politika garatuko du enpresak, guztiak ere atal honetan aztertuko direlarik.

E. INBERTSIOEN AZTERKETA

Aurreko ataletan aztertutakoaren arabera —merkataritza, ekoizpena eta erosketak—, beharrezko inbertsioak, horien ezaugarriak, ordaintzeko era eta inkorporazio-epea zehaztu behar dira.

Halaber, atal honetan adierazi behar da inbertsio-ondasunekin, material edo inmaterialekin, jarraituko den amortizazio-irizpidea, ikusteko zein mailatan eragingo duten ustiapen-kontuko kostuetan.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

F. LANGILEEN AZTERKETA

Salmenten kuantifikazioaren eta aurreko arloetan —Merkataritza, Ekoizpena, Erosketak eta Inbertsioak— azaldutakoaren arabera, enpresan lan egingo duten langileak zehaztu behar, izango duten ardura edo erantzukizuna, beren prestakuntza-premiak, langile horien kostuak eta ordainketen hileroko banaketa (Lan Aurrerakinak/Soldatak, Gizarte Segurantza, PFEZ-IRPF Atxikipenak, Aparteko Lan Aurrerakinak/Aparteko Ordainsariak).

G. USTIAPEN-KONTUA

Lehenik, aurreko ataletan aztertu gabeko kostuak sartzen dira hemen (alokairuak, bulego-materialak, finantza-gastuak, orokorrak eta maileguengatikoak, komunikazioak, etab.).

Ustiapen-kontua hiru urteko ikuspegiarekin egingo da, eta jardueraren lehenengo urtean hilerokoa izango da. Enpresak lortzea espero duen irabazi edo mozkina neurtzen du ustiapen-kontuak.

H. DIRUZAINTZAKO AURREKONTUA

Diru-sarrera eta irteerak eraman behar ditu enpresak (Kapital-ekarpena, hartutako maileguak, salmentak kobratu eta erosketak ordaintzea, gastu orokorren ordainketak, finantza-gastuen ordainketak, kredituak itzultzea, inbertsioen ordainketak, Haziendako ordainketak, Gizarte Segurantza...), ikusteko ea enpresak nahikoa diru izango duen aurrez ezarritako helburuak betetzeko. Aurrekontua hiru urterakoa izango da, eta horietako lehenak hileroko zehaztapena izango du.

elkar-lan

I. EGOERA-BALANTZEA

Sortu nahi den Kooperatiba berriaren premien eta ezagutzen denaren arabera, urte bakoitzaren balantzea egiten ahalegindu behar du, enpresak aurreko atal guztietan azaldutako helburuak betetzen baditu, izango duen ondare-egoera jakin ahal izateko.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

III. kooperatiba sozietate-ikuspegitik

OINARRIZKO LEGERIA EUSKAL HERRIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERABILTZEKOA

- 4/1993 Legea, ekainaren 24koa, Euskadiko Kooperatibena (EHAA, 1993ko uztailaren 19koa)
- 1/2000 Legea, ekainaren 29koa, Euskadiko Kooperatiben Legea aldatzen duena (EHAA, 2000ko abuztuaren 1ekoa)
- 64/1999 Dekretua, otsailaren 2koa, herri onurako kooperatiba-sozietateei dagozkien prozeduren eta betekizunen araudia onartzeko dena (EHAA, 1999ko otsailaren 17koa)
- 61/200 Dekretua, apirilaren 4koa, Gizarte Ekimeneko Kooperatibak arautzen dituena (EHAA, 2000ko maiatzaren 3koa)

KOOPERATIBAREN DEFINIZIOA

Enpresa eta pertsona-sozietate bat da, gutxienez hiru pertsonakoa lehen mailako Kooperatibetan; bere organo sozialen —Batzar Nagusi, Administratzaile Bakar/Kontseilu Errektore, Kontseilu Sozial, Zaintza Batzorde— erabakiak demokratikoki onartzen dira, bazkide bakoitzak boto bana duela; kapital sozialak —gutxienez 3.000 eurokoak— bigarren mailako balioa du, hau da, ez zaio bazkideari bere kapitalaren araberako botorik ematen eta interes mugatua bakarrik ordaintzen zaie bazkideei; edozein jarduera ekonomiko edo sozial egin dezake, Legeak debekatzen ez badu edota bere printzipio eta balioekin bateraezina ez bada.

BAZKIDEAK

- Lan Elkartuko Kooperatiban (LEK) pertsona fisiko eta juridikoak izan daitezke bazkide eta eratu ahal izateko hiru bazkide langile behar dira, gutxienez.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

- LEK-n egon litezkeen bazkide-motak:

  - Bazkide langileak: Beren lana eta kapitala jartzen dutenak.

  - Bazkide laguntzaileak: helburu soziala erabat gauzatu gabe, hori lortzen laguntzen dutenak.

  - Bazkide ez aktiboak edo ez erabiltzaileak: Bazkide aktibo izateari utzi baina bazkide izaten jarraitu nahi dutenak.

- Bazkideak onartzea Kontseilu Errektorearen ahalmena da, eta horren erabakiaren aurka —onartzeko nahiz onarpena ukatzeko izan— Batzar Nagusira jo daiteke.

- Bazkideak kooperatibatik irten daitezke (baja):

  a. Beren borondatez: nahi dutenean, nahiz eta Estatutuetan aurrez abisatzeko epe bat jartzen den (ez 6 hilabetekoa baino luzeagoa pertsona fisikoentzat).
  b. Nahitaez: bazkide izateko Estatutuetan finkaturiko betebeharren bat betetzen ez denean.

- Bazkideek informazio-eskubide oso zabala dute, nahiz eta badiren mugak eta bermeak horren erabilera egokirako.

- Bazkideen lotura sozietatearekin iraupen jakinekoa ala mugagabea izan daiteke.

- Kanporatzea bazkideak hutsegite sozial edo sozio-laboral oso larria egiten duenean bakarrik gerta daiteke; horretarako, espedientea egin ondoren, Kontseilu Errektoreak hartu behar du erabakia, eta honen aurka Batzar Nagusira jo daiteke.

ORGANO SOZIALAK

- Nahitaezko organoak:

  a. Batzar Nagusia
  b. Administratzaileak (Kontseilu Errektorea/Administratzaile Bakarra)

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

c. Zaintza Batzordea (Kooperatiban ehun bazkide edo gehiago direnean).

- Aukerako organoak:

a. Zaintza Batzordea (Kooperatiban ehun bazkide baino gutxiago direnean).
b. Errekurtso Batzordea
c. Kontseilu Soziala

NAHITAEZKO ORGANOAK

a. **Batzar Nagusia**, bazkide guztiek dute bertara joateko eskubidea eta obligazioa; bere eskumeneko gaiei buruz erabakiak hartzeko eta beste edozein gairi buruz eztabaidatzeko bilduko da.

- Bere erabakiak bete beharrekoak dira bazkide guztientzat.
- Bilkurak ohikoak ala apartekoak izan daitezke.
- Ohiko bilkurak (Gai Zerrendako gutxieneko puntuak):
  - Kudeaketa soziala aztertzea eta urteko kontuak onartzea
  - Soberakinak banatzea edo galerak egoztea
- Administratzaileek deituko dute, unibertsala denean izan ezik.
- Bazkide bakoitzak boto bat du (lehen mailako Kooperatibak).
- Erabakiak hartzeko balioz emandako botoen erdia baino gehiago behar da (zuriak eta abstentzioak zenbatu gabe), Legearen edo Estatutuen arabera gehiengo sendoa behar denean izan ezik.
- Bazkidearen ordezkari beste bazkide bat izan daiteke, Estatutuetan norberaren presentzia ezinbestekotzat jotzen ez bada, behintzat. Dena den, bazkide bakoitzak, bereaz gain, beste bi bazkideren ordezkaritza izan dezake gehienez.

elkar-lan

b. **Administratzaileak** talde-organoa –Kontseilu Errektorea– izan daiteke, edo pertsona bakarrekoa –Administratzaile bakarra, bazkideak 10 edo gutxiago badira eta horrela jaso bada Estatutu Sozialetan–; berari bakarrik dagokio Kooperatiba kudeatu eta ordezkatzea, Kooperatibako beste organo sozialei esleitu gabeko ahalmenez gain.

- Gutxieneko kopurua: 3 edo 1 (Kontseilu Errektorea/Administratzaile Bakarra).

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

- Batzar Nagusiak aukeratzen ditu bazkideen artetik, baina horietako batzuek ez dute bazkide izan beharrik. Administratzaile Bakarrak bazkide izan behar du beti. Aukeraketa isilpeko botazioz egin behar da.
- Gutxieneko karguak: Lehendakaria eta Idazkaria (Kontseilu Errektoreetan).
- Agintealdia ez da 5 urtekoa baino luzeagoa izango.
- Berritzea: aldi berean edota zatika.
- Organo honen bilerara Lehendakariak dei egin behar du eta kideen erdia baino gehiago biltzen direnean eratzen da; erabakiak bildutakoen gehiengoz hartzen dira, gehiengo sendoa eskatzen denean izan ezik. Lehendakariak kalitateko botoa du eta berdinketak erabakiko ditu.
- Administratzaileek eurek eragindako kalteez erantzun beharko dute, Legearen eta Estatutuen aurka edota beharrezko ardurarik gabe jokatzen dutenean.

c. **Zaintza Batzordea** talde-organo bat da, **nahitaezkoa Kooperatibak 100 bazkide edo gehiago dituenean;** bere oinarrizko eginkizuna Batzar Nagusiak eta Administratzaileek hartutako erabakiak ikuskatu eta kontrolatzea da, kooperatiba-legeriaren araberakoak izan daitezen.

- Gutxieneko kopurua: 3 kide titular eta Kooperatibako Estatutu Sozialek finkatzen dituzten ordezkoak.
- Horien agintea ezin da bat etorri Administratzaileenarekin.
- Horien aukeraketa Batzar Nagusian egingo da isilpeko botazioz.
- Ez da nahitaezko organo soziala Kooperatibak 100 bazkide baino gehiago dituenean.
- Kooperatibak besteren konturako 50 langile —iraupen jakinekoak nahiz mugagabeak— baino gehiago dituenean, mugagabeen artetik aukeratzen dutena sartu beharko da Zaintza Batzordean.
- Administratzaileek hiru hilero, gutxienez, informatu behar dute Zaintza Batzordea.
- Zaintza Batzordeak Kooperatibaren liburu sozialak aztertuko ditu, baita urteko kontuak ere, eta nahitaezko txostena egingo du soberakinen banaketaz edo galera-egozketaz, nahiz eta ez duen hau egin beharrik izango Kooperatibak bere urteko kontuen ikuskatze edo auditoria egiten duenean; eta Batzar Nagusiaren edo Kontseilu Errektorearen erabaki deusezen edo deuseztagarrien aurka jo ahal izango du.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

AUKERAKO ORGANOAK

a. **Zaintza Batzordea** talde-organoa da, eta aukerakoa, 100 bazkide edo gutxiago dituzten Kooperatibentzat, beren Estatutu Sozialetan horrela ezarrita baldin badute. Gorago aipatu ditugu bere ezaugarri nagusiak.

b. **Errekurtso Batzordea**: Kooperatibak bere Estatutu Sozialetan ahalbidetzen duenean, Batzar Nagusian eta isilpeko botazioz aukeratu behar da; bere eginkizuna, alderen batek eskatzen duenean, beste organo sozial batzuek hartutako erabakiak berrikustea da, eta bere erabakiak bukaraziko du Kooperatibako barne-bidea.

- Eskubide osoko bazkideak bakarrik aukera daitezke, Kooperatibako Estatutu Sozialek ezartzen duten antzinatasun, esperientzia eta egokitasuna dutenak.
- Kide-kopurua: Estatutu Sozialetan finkatuko da, titularrei nahiz ordezkoei dagokienean.
- Agintealdia: gutxienez 3 urtekoa. Baina berriztagarria, Estatutuetan mugatzen ez bada, behintzat.
- Erabakiak: kideen erdia baino gehiago biltzen denean eta Estatutuetan ezarritako gehiengoekin hartzen badira erabakiak. Lehendakariak ez du kalitate-botorik.
- Zehaztuta dago zein kasutan ezin duten beren kideek parte hartu errekurtsoak bideratzen eta ebazten.

c. **Kontseilu Soziala** talde-organo bat da, eta beti aukerakoa, bazkide langileen edo laneko bazkideen ordezkari Kooperatiban egiten duten lanari dagozkion gai guztietan:

- Administratzaileek, bazkide langileen edo lan-bazkideen lan-prestazioari buruzko zenbait gaitan, ezin dute erabakirik hartu aurrez Kontseilu Sozialari txosten bat espresuki eskatu gabe beren erabaki-proposamenaz.
- Osaera: bazkide langileek edo lan-bazkideek bakarrik.
- Estatutu Sozialetan finkatuko dira bere iraupena, kargu-uztea, funtzionamendua, Administratzaileek bileretan parte-hartzea, soldatako langileen lan-harremanak.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

ARAUBIDE EKONOMIKOA

- **Erantzukizuna:** Bazkideek ez dute erantzukizun pertsonalik sozietatearen zorretan, Kooperatibarekin harpidetutako ekarpenetara mugatzen delarik.

- **Kapital Soziala**: Bazkideen ondare-ekarpenek, nahitaezkoek nahiz borondatezkoek, osatzen dute. Izendun tituluen bidez edo partaidetza-libreta izendunen bidez egiaztatuko dira.

  Gutxienez 3.000 euroko ekarpenak egin behar dira, hori baita kapital sozialak izan behar duen gutxieneko kopurua kooperatiba bat eratzeko.

- **Nahitaezko ekarpenak**:
  a. Hasierako nahitaezko ekarpena: Bazkide bihurtzeko beharrezkoa dena. %25, gutxienez, eratzen denean ordaindu behar da, eta gainerakoa 4 urteko epean, gehienez ere.
  b. Nahitaezko gutxieneko ekarpena: Bazkide orok une oro izan behar duena.

- **Borondatezko ekarpenak**: Batzar Nagusiak erabaki ditzake. Gainera, Kontseilu Errektoreak onar ditzake, bazkide batek aske eta bere borondatez egin nahi dituenean.

- **Ekarpenen interesa**: Batzar Nagusiak finkatzen du, eta hori %0tik diruaren legezko interes-tasarainokoa izan daiteke (gehienezko kopurua gizarte-ekimeneko Kooperatibentzat) + %6. Dena den, ezin da batere interesik ordaindu, ez bada behar besteko emaitzarik lortzen edota ez badago horiek estaliko dituen erabilpen askeko erreserbarik.

- **Ekarpenak gaurkotzea**: Kooperatibaren balantzea erregulariza daitekeenean eta aurreko galerak estali edo konpentsatu direnean bakarrik gaurkotu daiteke ekarpenen balioa.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

- **Ekarpenak itzultzea**: Bazkideak Kooperatiba uzten badu, ekarpenak bazkideen esku utzi behar dira, baina itzulketa hau 5 urte arte luza daiteke gehienez ere, diruaren legezko interes-tasa ordainduz.

  Baja ez bada justifikatua, nahitaezko ekarpenen %20raino ken daiteke.

  Baja hori kanporatua izateagatik edo bazkide gisa irauteko gutxienez itundutakoa ez betetzeagatik baldin bada, nahitaezko ekarpen horietan %30 arteko kenketa egin daiteke.

- **Soberakinen banaketa**: Behin zergak ordaindu ondoren eta, hala badagokio, beste ekitaldi batzuetako galerak konpentsatuta, honela banatuko da ondorengo emaitza:

  - %20 edo 25 Nahitaezko Erreserba Fondora (gutxieneko %ak)

  - %10 edo 5 Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondora (gutxieneko %ak)

  - Gainerakoa: Batzar Nagusiak nahi bezala, ondorengo zertarako hauen barruan:
    a. Bazkideentzako itzulkin edo erretornuak: Kooperatibarentzat egindako zerbitzuen, operazioen edo ekintzen proportzioan kalkulatuta (ezingo dute itzulkinik hartu gizarte-ekimeneko kooperatibetako bazkideek).
    b. Borondatezko Erreserba Fondoak sortu edo hobetzea:
       - Banagarriak
       - Banatu ezinak
    c. Soldatakoen partaidetza
    d. Nahitaezko Fondoak hobetzea

- **Galeren egozpena**: Kooperatibaren galerak Estatutu Sozialetan ezarritako irizpideen bidez konpentsa daitezke, ondorengo arauak errespetatuz betiere:

  - Borondatezko Erreserba Fondoetara (galera guztiak egotz daitezke).

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

- Nahitaezko Erreserba Fondora, azken 5 urteetan emaitza positiboekin Nahitaezko Fondoetara bideratutako batez besteko %a.
- Gainerakoa bazkideei egotziko litzaieke berehala edota gehienez ere 5 urteko epean, dagozkien itzulkin edo erretornuen kargura.

Halaber, galerak kontu berezi batera egoztea erabaki dezake Batzar Nagusiak, Kooperatiban gehienez ere ondorengo 5 urteetan izan daitezkeen emaitza positiboen kargura.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

IV. eraketa-prozesua

- Aurretiazko urratsa: Kooperatibaren izena besteren batenarekin bat ez datorren ziurtagiriak; hauek Euskadiko Kooperatiben Erregistroari eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioko Kooperatiben Erregistroari eskatuko zaizkie. Euskadiko Kooperatiben Erregistroa maiatzaren 24ko 189/1994 Dekretuak, Euskadiko Kooperatiben Erregistroaren antolaketa eta jarduna arautzen dituenak, garatzen du (EHAA, 125. zka., 1994ko uztailaren 1ekoa).

- Ziurtagiri horiek sustatzaileek sozietatearen izena —enpresaren izena— garbi eduki ondoren eskatu behar dira, atzetik ondorengo hitzak edo laburdurak erantsi behar zaizkiolarik: Kooperatiba Elkartea edo Koop. E.

- Kooperatiba eratzeko sustatzaileek (gutxienez 3 lehen mailako Kooperatibetan) Batzar Eratzailea egingo dute, bertan guztiak bildu eta Estatutu Sozialak eta Kooperatiba eratzeko beharrezko erabakiak onartuko dituzte.

- Batzar Eratzailean onarturiko Estatutu Sozialak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan aurkeztu ahal izango dituzte kudeatzaileek, sustatzaileek beren artetik izendatuek, Estatutu horiek eskritura publiko bihurtu aurretik Erregistroan kalifika ditzaten, zuzenak diren ala zein akats duten esanez.

- Estatutu Sozialek gutxienez ondorengo puntuak eduki eta arautu behar dituzte:

  - Sozietatearen deitura –enpresaren izena–.
  - Egoitza soziala –helbidea–.
  - Sozietatearen helburu den jarduera: adibidez, «informatika-zerbitzuak ematea» .
  - Iraupena: denbora jakin baterako eratzen den ala mugagabea den.
  - Bere jarduera nagusiaren lurralde-eremua.
  - Bazkideak Kooperatiban onartzeko eta Kooperatibatik irteteko baldintzak.
  - Bazkideen eskubideak eta betebeharrak, bazkideek jarduera kooperatiboetan parte hartzeko gutxieneko konpromisoa finkatuz.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

- Bazkideen diziplina-arauak, hutsegiteen tipifikatzea, zigorrak eta prozedura eta errekurtsoak.
- Gutxieneko kapital soziala –hiru mila euro, gutxienez–; bazkideen hasierako nahitaezko ekarpena zehaztea.
- Bazkideen ekarpenak itzultzeko eskubidea eta horiek eskualdatzeko araubidea.
- Soberakinak (emaitzak zergak kenduta) banatzeko irizpideak eta Nahitaezko Fondo Sozialetara gutxienez bideratuko diren ehunekoak finkatzea.
- Batzar Nagusira deitzeko publizitate-era eta epea, lehen edo bigarren deialdian, eta erabakiak onartzeko araubidea.
- Administrazio-organoaren jokabidea eta bere egitura.
- Hala badagokio, Zaintza Batzordearen osaera eta egitekoak, baita Errekurtso Batzordearenak eta Kontseilu Sozialarenak ere.
- Kooperatiba desegiteko kausak.

- Kooperatiba 2 hilabeteko epean eratuko da eskritura publiko bidez, Batzar Eratzailea egiten denetik edota Estatutu Sozialen kalifikaziotik aurrera.

- Eskritura publikoa eskudun den Foru Ogasunera helaraziko da gero Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK-CIF) lortzeko eta egintza inskribagarriari dagozkion zergak kitatzeko; gero Euskadiko Kooperatiben Erregistrora eramango da inskribatzeko.

- Kooperatibak Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egiten duenean hartzen du nortasun juridikoa.

elkar-lan

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

V. udal-baimenak eta beste administrazio-izapide batzuk

SARRERA

Negozio bat abiarazteko udal-izapide guztiak zehatz-mehatz ezagutzeko, jarduera zertu nahi den herriko udaletxera jo behar da eta bertan zuzenean informatu; adibidez, Bilbon web orrialde honetara (www.bilbao.net); Donostian beste honetara (www.donostia.org) eta Gasteizen beste honetara (www.vitoria-gasteiz.org).

Alferrikako inbertsiorik ez egiteko, negozioa edo enpresa-jarduera kokatu nahi den herriko udaletxean aurrez galdetzea komeni da, negozioa Irekitzeko Baimena lortzeko aukerarik badagoen edo ez jakiteko. Kontsulta egiteko zenbait dokumentazio aurkeztu behar da (jarduera-mota, lokalaren ezaugarriak, kokapena, etab.), eta erantzuna normalean loteslea izaten da.

OBRA-BAIMENA

Edozein motatako lan edo obrak egiteko, nahitaezkoa da dagokion Baimen edo Lizentzia lortzea, eta horretarako hirigintzako udal-araudia ezagutu behar da, baita obra-mota bakoitzarentzat eskatzen den dokumentazioa ere.

OKUPAZIO-BAIMENA

Eskatutako Baimenari dagozkion lan edo instalazioak bukatzean, berorien ikuskapena egin behar da, onartutako proiektuari dagozkiola egiaztatzeko.

IREKITZEKO BAIMEN EDO LIZENTZIA

Inolako obrarik ez bada egin behar, edota horiek burutu ondoren, Udalari Irekitzeko Lizentzia edo Baimena eskatu behar zaio jarduerari ekin ahal izateko; horretarako, lokalak ireki eta jartzeko baimenari dagokion tasa ordaindu behar da.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

Jarduera batzuek ez dute honelako Baimenik behar. Dena den, eta kapitulu honen sarreran azpimarratu den bezala, Irekitzeko Lizentzia edo Baimena behar den edo ez jakiteko, dagokion kontsulta egingo zaio Udalari.

IDENTIFIKAZIO FISKALEKO KODEA ESKATZEA (IFK-CIF)

IFK-CIF zerga-ondorioetarako enpresa identifikatzen duen zenbakia da. Identifikazio Fiskaleko Kodea (IFK-CIF) enpresaren kokalekuaren arabera dagokion Lurralde Historikoko Foru Aldundian (Ogasun eta Finantza Departamentuan) eskatu behar da. Horretarako, dagokion adierazpen edo aitorpen-eredua bete behar da, eta eraketa-agiriaren kopiarekin batera aurkeztu.

ONDARE-ESKUALDAKETEI ETA AGIRI BIDEZKO EGINTZA JURIDIKOEN GAINEKO ZERGA AITORTU ETA LIKIDATZEA

VI. kapituluan agertzen den bezala (KOOPERATIBAREN ZERGA-ARLOA), Kooperatibak salbuetsita daude zerga honetatik, baina, hala ere, salbuespen hori jaso egin behar dute bere Aitorpen eta Likidazioan, eta enpresa kokatuta dagoen edo kokatuko den Lurralde Historikoaren arabera dagokion Foru Ogasunera bideratu behar da.

ALTA EKONOMI JARDUEREN GAINEKO ZERGAN (EJZ-IAE)

EJZ-IAE zuzeneko zerga bat da, enpresaburu, profesional edo artisten jarduerak zergapetzen dituena. Kuota udal-, probintzia- edo estatu-mailakoa izan daiteke. Alta-aitorpena Foru Ogasunean aurkeztu behar da, edota jarduera zertuko den lekuko Udaletxean. Altak-aitorpena jarduera hastearekin batera aurkeztu behar da.

Tokiko Zerga Ordainketarako Araubidearen Erreformaren ondorioz (Bizkaian 7/2003 Foru Araua, martxoaren 26koa, BAO-BOB 2003/03/11; Araban 12/2003 Foru Araua, martxoaren 31koa, ALHAO-BOTHA 03/04/14; Gipuzkoan 4/2003 Foru Araua, martxoaren 19koa, GAO-BOG 03/03/25; eta Espainiako Estatuan 51/2002 Legea, abenduaren 27koa, BOE 02/12/28), EJZ-IAE-tik salbuetsita daude lehen 2 urteetan jarduera berri bat hasten duten subjektu pasibo guztiak, eta, Udalek nahi badute, %50eko hobaria eman diezaiekete ondorengo 5 urteetan.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

Halaber, salbuetsita daude urtean 2 milioi euro baino gutxiagoko eragiketak dituzten kooperatibak.

Hala ere, EJZ-IAEri buruz udalerriko zerga-ordenantzak horrela ezartzen badu, kuotaren %95erainoko hobaria izan dezakete kooperatibek, salbuetsita egon ondorengo urteetan.

ALTA BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAN (BEZ)

BEZ (IVA) zeharkako zerga da, kontsumoaren gainekoa, eta enpresaburuek eta profesionalek egindako ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak zergapetzen ditu.

Zerga honetako alta eta Ekonomi Jardueren gaineko Zergarena (EJZ-IAE) paraleloan tramitatzen dira.

Hala ere, eta alta-aitorpen honen aurretik, bada «eragiketak hasi aurreko aitorpena» delako figura, eta bere helburua jarduera benetan hasi aurretik egindako inbertsioetan ordaindutako BEZa berreskuratzeko mekanismoa aktibatzea da.

Zerga hori hainbat araubideren menpe dago, eta bakoitzean aldatu egiten dira zerga-betebeharrak.

ALTA GIZARTE SEGURANTZAN

Kontuan izanda Kooperatiba Elkarteek ezaugarri bereziak dituztela Gizarte Segurantzarekiko harremanetan, problematika hori berariaz jorratzen da Gida honen VII. Kapituluan.

elkar-lan

LANTOKIAREN IREKITZEA JAKINARAZTEA

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantzako Lurralde Ordezkaritzak emandako inprimaki baten bidez jakinarazi behar da ireki ondorengo 30 egunetan, langileak ari badira lantoki horretan beren zerbitzua ematen.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

PATENTEAK ETA MARKAK

Patente eta Marken Espainiako Bulegoaren web orrialdea bisitatzea gomendatzen da: www.oepm.es.

LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PLANA

Kooperatibek bete egin behar dituzte gai horretan indarrean dauden araudiak eta horrexegatik martxan jarri behar dituzte laneko istripuen arriskuak saihestu edo gutxitzeko prebentzio-politikak. OSALANen web orrialdea (www.osalan.net) et Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Laneko Segurtasun eta Higienearen Institutu Nazionalaren web orrialdea (www.mtas.es) bisitatzea gomendatzen da.

DATUEN BABESA

Datu pertsonalak dauzkaten informatika-artxiboak sortzen direnean, abenduaren 13ko 15/99 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babestekoak, ezartzen dituen betebeharrak kontuan izan behar dira, baita hori garatzen duten gainerako xedapenak ere, eta horretarako Datuen Babeserako Estatu Agentziaren web orrialdea bisitatzea aholkatzen dizuegu: www.agenciaprotecciondatos.org

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

VI. kooperatibaren zerga-arloa

ZERGA-ARLOKO ARAUDIAK

Kontuan izanda zerga-legerian aldaketak, arinagoak edo sakonagoak, izan direla denboran zehar, hemen Gida hau argitaratzen den garaian Kooperatibei aplikatzeko indarrean dauden zerga-arauak hartzen ditugu kontuan, nahiz eta, Foru Arauetako batzuk aldatu egin diren puntualki, argitaratu ondoren promulgaturiko xedapenen bidez:

2/1997 Foru Araua, maiatzaren 22koa, Gipuzkoako Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (GAO-BOG, 1997/05/30), maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauak, zenbait zerga-neurri onartzen zituenak, bere 5. artikuluaz aldatua (GAO-BOG, 2002/05/20)

9/1997 Foru Araua, urriaren 14koa, Bizkaiko Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (BAO-BOB 1997/11/03), apirilaren 30eko 5/2002 Foru Arauak, 2002ko Zerga Neurriei buruzkoak, bere 5. artikuluaz aldatua (BAO-BOB 2002/05/21).

16/1997 Foru Araua, ekainaren 9koa, Arabako Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa (ALHAO-BOTHA, 2002/06/05), maiatzaren 26ko 5/2002 Foru Arauak, zenbait zerga-xedapen aldatzen dituenak, bere 6. artikuluaz aldatua (ALHAO-BOTHA 2002/06/05)

KOOPERATIBA-MOTAK ZERGA-ONDORIOETARAKO

Zerga-arloan babestutako Kooperatibak honela sailkatzen dira aipaturiko Lege horretan:

- Kooperatiba Babestuak
- Kooperatiba Bereziki Babestuak

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

KOOPERATIBA BABESTUAK

Kooperatiba Elkarte hauek ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, ezarritako printzipio eta xedapenetara egokitu behar dute, eta zerga-arloan babesturiko izaera galtzeko arrazoirik ez izan.

KOOPERATIBA BABESTUENTZAT ONARTURIKO ZERGA-ONURAK

1. Ondare Eskualdaketa eta Agiri bidezko Egintza Juridikoen gaineko Zergan

   Salbuespena ondorengo egintza, kontratu eta eragiketetan:

   a. Eraketa, kapital-handiagotze, bat-egite eta banatzeko egintzetan.
   b. Maileguak eratzea eta kitatzea, baita obligazioak ere.
   c. Bere helburuak betetzeko, Hezkuntza eta Sustapen Fondoan sartuko diren ondasunak eta eskubideak eskuratzea.

2. Sozietateen gaineko Zergan

   a. Zerga-tasak

   - Orokorra: %21. Kreditu-kooperatibak izan ezik (%28)
   - Tamaina txikiko kooperatibak: 60.101,21 ¤-taraino likidagarri den Oinarria %19, eta oinarriaren gainerakoa %21.

   b. Amortizazio-askatasuna

   - Aktibo berri amortizagarriaren elementuei dagokienez, aukera hori izango dute Euskadiko Kooperatiben Erregistroan inskripzioa egin ondorengo hiru urteetan elementu horiek eskuratu zituzten Kooperatibek.
   - Zerga-arloan kengarri den kopurua —amortizazio-askatasunaren izenean, ekitaldi bakoitzean amortizazio arrunta egin ondoren (sekula ez ezarritako gutxienekoa baino txikiagoa)— ezingo da izan Kooperatibaren emaitza-kontuko saldoaren zenbatekoa baino handiagoa. Hori Nahitaezko Erreserba Fondora egin beharreko ekarpenak kenduta eta, hala badagokio, baita soberakin garbi erabilgarrietatik soldatako langileei ordaintzen zaizkien kopuruak ere.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

- Amortizazio-askatasuna bateragarri da Sozietateen gaineko Zerga arautzen duten FORU ARAUETAN aurreikusitako inbertsioengatiko kenketarekin.

3. Ondasun Higiezinen gaineko Zergan

- Kuotaren —eta, hala badagokio, errekarguen— %95eko hobaria.
- Nekazaritzako Kooperatiben edo/eta Lurra Erkidegoan Ustiatzeko Kooperatiben landa-ondasunei buruz bakarrik.

KOOPERATIBA BEREZIKI BABESTUAK

Kooperatiba bereziki babestuak, lehen mailako mota hauetako Kooperatiba babestuak dira:

a. Lan Elkartuko Kooperatibak
b. Nekazaritzako Kooperatibak
c. Erkidegoan Ustiatzeko Kooperatibak
d. Kontsumo Kooperatibak
e. Irakaskuntzako Kooperatibak
f. Etxebizitza Kooperatibak

Dena den, Kooperatiba-mota horiek, bereziki babestutzat jotzeko, mota bakoitzekoentzat Foru Arauetan ezarrita dauden betebeharrak bete eta mantendu behar dituzte, eta zerga-arloan babesturiko Kooperatiba-izaera galtzeko arrazoirik ez izan, hauen zerrenda geroago agertzen delarik kapitulu honetan.

Lan Elkartuko Kooperatibak bereziki babestuak izango dira ondorengo baldintzak betetzen badituzte:

a. Pertsona fisikoak elkartzea, beren lana Kooperatiban egin eta elkarren artean ondasun eta zerbitzuak ekoitziz beste batzuentzat.
b. Bazkideei guztira emandako ordainsariak —aurrerakinak eta itzulkin gisa eska ditzaketen kopuruak— ez izatea Kooperatibari dagokion sektoreko batez bestekoaren %200 baino handiagoak, betiere pertsona horiek gure Kooperatiban besteren konturako langile izanez gero hartuko zuketen zenbatekoari buruz.
c. Kooperatibak besteren konturako langileak erabil ditzake edozein kontratazio-eraren bidez, baina betiere horien urteko ordu-kopurua

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

ez bada Kooperatibako bazkide langileen urteko ordu-kopuruaren %25 baino handiagoa. Ez dira konputatuko besteren konturako langile kontratatuek urtean egindako orduak ondorengo kasu hauetakoren batean baldin badaude

1. Mendeko edo laguntza-lanak egiten dituztenak.
2. Legez subrogatuak izan direnak edo Kooperatibak subrogaturiko jardueretarako lanak egiten dituztenak.
3. Lan-utzialdi, aldi baterako ezintasun, amatasun, adopzio edo famili harreragatik bajan duden bazkide langileen edo besteren konturako langileak ordezteko lanak egiten dituztenak.
4. Kooperatibako bazkide langile izateari esplizituki uko egiten dioten langileek egindako lana.

OHARRA: 8 bazkide langile baino gutxiago dituzten Kooperatibek besteren konturako 2 langile enplega ditzakete gehienez ere.

KOOPERATIBA BEREZIKI BABESTUTZAT ONARTUTAKO ZERGA-ONURAK

1. <u>Ondare Eskualdaketa eta Agiri bidezko Egintza Juridikoen Zergan</u>

   - Kooperatiba Babestuentzat onarturiko onura guztiak.
   - Zerga-salbuespena, zuzenean bere helburu sozial eta estatutuzkoak betetzeko diren ondasun eta eskubideak eskuratzeko eragiketetan.

2. <u>Sozietateen gaineko Zergan</u>
   a. Kooperatiba Babestuentzat onarturiko onura guztiak.
   b. Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria.
   c. Zergaren kuota osoaren %75eko hobaria nekazaritzako kooperatiba bereziki babestuentzat, uztailaren 4ko 19/1995 Legeak, nekazaritzako ustiategien modernizazioari buruzkoak, dioenaren arabera, lehentasunezko elkarte-ustiategi badira.

HERRI-ONURAKO KOOPERATIBENTZAT ETA GIZARTE EKIMENEKO KOOPERATIBENTZAT ONARTUTAKO ZERGA-ONURAK

1. <u>Ondare Eskualdaketa eta Agiri bidezko Egintza Juridikoen Zergan</u>

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

Kooperatiba babestuentzat eta bereziki babestuentzat onartutako onura berberak.

2. Sozietateen gaineko Zergan

   Interes Orokorreko Jardueretan Parte-hartze Pribaturako Zerga-Pizgarriei buruzko Foru Arauetan 11. artikulutik 20.era bitartekoetan ezarritako zerga-araubidearen aplikazioa (Araban 13/1996 F.A., apirilaren 24koa; Bizkaian, 9/1995 F.A., abenduaren 5ekoa; eta Gipuzkoan, 5/1995 F.A., martxoaren 24koa).

3. Toki Zergetan (Ondasun Higiezinen gaineko Zerga, Ekonomi Jardueren gaineko Zerga…)

   Interes Orokorreko Jardueretan Parte-hartze Pribaturako Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauetan 21. artikuluetan ezarritako zerga-araubidea.

ZERGA-ARLOAN BABESTUTAKO KOOPERATIBA-IZAERA GALTZEKO ARRAZOIAK

Kooperatiba Babestuaren —edota, hala badagokio, Bereziki Babestuaren— izaera galtzeko arrazoiak honako hauek dira:

1. Nahitaezko Erreserba Fondoa edo/eta Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa ez hornitzea legezko eta, hala balegokio, estatutuzko xedapenez eskatzen den kasu, baldintza eta kopuruan.
2. Kooperatibaren bizitzan banatu ezinak diren Erreserba Fondoak bazkideen artean banatzea, baita likidazioaren unean sobera dagoen aktiboa banatzea ere.
3. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoko kopuruak ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibenak, 68-3. artikuluan finkatzen dituen helburuetara ez, baizik eta bestelakoetara bideratzea.
4. Kooperatibako balantze-erregularizazioaren emaitzaren zertarakoari buruzko edo bazkideek Kapital Sozialera egindako ekarpenak gaurkotzeko arauak ez betetzea.
5. Bazkideek Kooperatibaren Kapital Sozialera egindako ekarpenei baimendutako oinarrizko interes-tasa baino handiagoa ordaintzea

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

(diruaren legezko interesa + 6 puntu/diruaren gehienezko legezko interesa gizarte ekimeneko kooperatibentzat), estaltzeko soberakin edo fondo erabilgarriak baldin badaude betiere.

6. Aurreko 5. atalean aipaturiko interes-tasa baino handiagoa ordaintzea, ekarpenak itzultzerakoan berandutzagatiko interesa ordaintzen bada —bazkide batek kooperatiba utzi eta bere ekarpenak edo horietako batzuk itzultzeke daudenean—.
7. Aurreko 5. atalean aipaturiko interes-tasa baino handiagoa ordaintzea sortutako eta banatu gabeko kooperatiba-itzulkinei dagokienean, Batzar Nagusiaren erabakiz Erreserba Fondo Berezi batera bideratzen direnean.
8. Bazkideek Kooperatibaren mesedetan egindako emate, jarduera edo zerbitzuen proportzioan ez banatzea itzulkinak (gizarte-ekimeneko kooperatibek eta herri-onurakotzat jotakoek ezin dituzte itzulkinak beren bazkideen artean banatu).
9. Ekitaldi ekonomikoko galerak Kooperatibako Estatutu Sozialek (Araubide Ekonomikoan, normalean Galera Egozpena deitzen den artikuluan) xedatzen duten bezala ez egoztea.
10. Ekitaldi ekonomikoko galerak egozterakoan estatutuzko edo legezko xedapenak urratzea, baita Estatutu Sozialetan baimendutako erabilgarritasun-marjinaren barruan Batzar Nagusiak hartutako erabakiak ere.
11. Bazkideek Kapital Sozialera egindako ekarpenak legezko mugak baino handiagoak izatea.
12. Kooperatibak %25eko partaidetza baino handiagoa izatea Kooperatiba ez den Sozietate edo Erakunde baten Kapital Sozialean.
13. Aurreko atalean esandakoa gorabehera, Kooperatibak %50erainoko partaidetza izan dezake Kooperatiba ez den Sozietate edo Erakunde baten Kapital Sozialean, honen jarduerak Kooperatibaren beraren jardueraren prestatzaileak, osagarriak edo menpekoak baldin badira.
14. Aurreko bi ataletan aipaturiko kasuetan, Kooperatibaren partaidetzak ezingo dira inola ere bere baliabideen %50 baino handiagoak izan.
15. Haziendako Zuzendari Nagusiak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Arabako Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Departamenduak eta Gipuzkoako Ogasun eta Finantzatako Foru Diputatuak baimendu egin ditzakete, Kooperatibak aurrez eskatuta, partaidetza handiagoak Kooperatiba ez diren Sozietate edo Erakundeetan, betiere Kooperatibak justifikatzen badu partaidetza hori lagungarri dela helburu kooperatiboak hobeto betetzeko eta bere partaidetza horrek ez dituela printzipio kooperatiboak urratzen.
16. Eragiketa kooperatibizatuak egitea bazkide ez direnekin, Legeak baimentzen duen kasuetan izan ezik.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

17. Soldatako langileak erabiltzea legezko mugak gainditu, horrela ezarrita duten Kooperatibetan.
18. Behar baino bazkide-kopuru txikiagoa izatea hamabi hilabetez. EAEn lehen mailako kooperatiba baten gutxieneko bazkide-kopurua hirukoa da.
19. Kapital Soziala Estatutuetan ezarritakoaren azpitik egotea eta hamabi hilabeteko epean beharrezko kopururik ez lortzea.
20. Jarduera kooperatibizatua bidezko kausarik gabe bi urtez geraraztea.
21. Organo sozialak, bidezko arrazoirik gabe, bi urtez jarduerarik gabe izatea.
22. Kooperatibak sortzerakoan izan zuen helburua lortu izana.
23. Jarduera kooperatibizatua gauzatzeko ezintasun nabaria, egiaztatua, alegia.
24. Kanpoko ikuskatze edo auditoriarik ez egitea legezko arauetan ezarritako kasuetan.

HERRI ONURAKO ETA GIZARTE EKIMENEKO KOOPERATIBEN ZERGA-ONURAK GALTZEA

- Herri-onurako kalifikazioa galtzea.
- Herri-onurako edo gizarte-ekimeneko kooperatiba gisa onartua izateko eskatzen diren betebeharretakoren bat ez betetzea.

elkar-lan

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

VII. gizarte segurantza kooperatiban

Kooperatiba Elkarteak, bere bazkide langileentzako Estatutu Sozialetan ondorengo hauetako sistemaren bat aukeratu behar du Gizarte Segurantza gisa:

- Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorra.
- Langile Autonomoen Erregimen Berezia.

Erregimen bat edo bestea aukeratzeak bere eragina du estaldurei nahiz kostuei dagokienean, eta hori normala da, baina kontuan izan behar da Kooperatiba eratzerakoan.

Erregimen hori alda daiteke Kooperatibaren bizitzan, baina aldaketa egiteko baldintza bat dago: gutxienez 5 urteko epea igarotzea aurrez egindako aukeratik.

Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrari dagokionez, gaur egun bazkide langileek edo lan-bazkideek bi desberdintasun handi dituzte besteren konturako langileen aldean; honako hauek, alegia:

1. FOGASA-Soldatak Bermatzeko Fondoaren prestaziorik ez dute, Kooperatibak ez baitauka estaldura horrengatik kotizatu beharrik, bazkideak, aldi berean, langile eta enpresaburu baitira.
2. Iraupen jakineko bazkide langileei edo lan-bazkideei ez zaie langabeziako prestaziorik onartzen beren sozietate-kontratua bukatzean.

Autonomoen Erregimen Berezian kotizazio-oinarri bat aukeratu behar da eta, gutxienez, 2003ko ekitaldirako, horretarako ezarritakoa hartu behar da, hilean 740,70 ¤-tan kuantifikatua, hilean gutxieneko kuota 196,29 ¤-koa delarik bazkide bakoitzeko (Ezintasun Iragankorreko estaldurarik gabe) edo 209,62 ¤-koa bazkideko (Ezintasun Iragankorraren estaldurarekin), erregimen berezi honen estaldurarako eskubidea dutelarik, non ez baitago langabeziako prestaziorik.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN OROKORRA - 2003

KOTIZAZIO-OINARRIAK				KOTIZAZIO-TASAK (%tan)			
Taldea	Gutxienek. ¤/hilean		**Gehienekoak ¤/hilean**	**Gertakizunak**	**Enpresa**	**Langil.**	**GUZTIRA**
1	784,20	HILEKOA	2.652,00	Gertakizun arruntak	23,60	4,70	28,30
2	650,70		2.652,00	Aparteko orduak			
3	565,50		2.652,00	Ezinbestekoak	12,00	2,00	14,00
4	526,50		2.652,00	Ez ezinbestek.	23,60	4,70	28,30
5	526,50		2.652,00	Lan Istripuak eta Lanbide Gaixotasunak	Primen tarifa, 2930/1979 E.D.z onartua, %10eko murrizketaz		
6	526,50		2.652,00				
7	526,50		2.652,00				
8	17,55	EGUNER	88,40	Bazkideentzako langabezia	6,00	1,55	7,55
9	17,55		88,40	Lanbide Heziket	0,60	0,10	0,70
10	17,55		88,40				
11	17,55		88,40	FOGASArik ez dago ez zaielako bazkideei eskatzen			

LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIA - 2003

KOTIZAZIO TASAK

- %26,50 EZIN. IRAGAN. ESTALI GABE
- 28,30% EZIN. IRAGAN. ESTALITA
  4. egunetik aurrera prestazio ekonomikoa hartuko dute (20. egunera arte oinarri erregulatzailearen %60 eta 21.etik aurrera %75).
- %a LI eta LG-gatik epigrafearen arabera –1,20tik 8,95era–
  1. egunetik hartzen du prestazio ekonomikoa: Oinarri Erregulatzailearen %75 lan-istripuaren edo lanbide-gaixotasunaren ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik, estaldura hori aukeratu badu.

Aukerakoak dira

2003 OINARRIAK

- GUTXIENEKOA: 740,70 ¤/hilean
- GEHIENEZKOA: 2.652 ¤/hilean
  Salbuespena 50 urte edo gehiagoko jendea: 1.388,10 ¤/hilean, salbu ofizioz RETAn sartzen badira, ofiziozko bajagatik Gizarte Segurantzako Erregimen batean, kasu horretan beren Gizarte Segurantzako Erregimenean zeukaten kotizazio-oinarria mantendu ahal izango baitute, edota RETAn ezarritako gutxienekoaren eta gehienezkoaren artean aukeratu.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

OHARRAK:

- Erregimen Orokorrean, gaixotasun arrunt edo lanekoa ez den istripuagatik Aldi Baterako Ezintasunean, 4. eta 15. egunen arteko bajak enpresaren kargura izaten dira, ez ordainketa delegatu gisa Gizarte Segurantzaren kargura, baizik eta zuzeneko erantzukizun gisa, legez enpresari ezarria (Ikus 5/1992 Errege Lege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Premiazko Aurrekontu Neurriena, neurri hori 1992ko uztailaren 23tik ezarri zuelarik).

- Laguntzaren zenbatekoa oinarri erregulatzailearen %60koa da gaixotasun arrunt edo lanekoa ez den istripuaren ondoriozko Ezintasun Iragankorragatik bajaren 4. eta 20. egunen artean, eta oinarriaren %75ekoa 21. egunetik aurrera.

- Kotizazio-oinarria murriztea gutxieneko oinarriaren %75etik gehienezko oinarriaren %100eraino: 30 urte edo gutxiago dituzten langileentzat eta 45 urte edo gehiagoko emakume langileentzat. Gehienezko iraupena 3 urtekoa alta-dataren egunetik aurrera.

ERREGIMEN OROKORRAREN ETA LANGILE AUTONOMOEN ERREGIMEN BEREZIAREN GERTAKIZUNAK ETA TASAK

	ERREGIMEN OROKORRA			**RÉGIMEN ESPECIAL DE TRABAJADORES AUTÓNOMOS**	
	ENPRESA	**LANGILEA**	**GUZTIRA**	**CON I.T.**	**SIN I.T.**
GERTAKIZUN ARRUNTAK	%23,60	%4,70	%28,30	28,30	26,50
APARTEKO ORDUAK - Ezinbesteko kasuak	%12,00	%2,00	%14,00		
- Gainerakoak	%23,60	%4,50	%28,30		
LANGABEZIA - Tasa Orokorra	%6,00	%1,55	%7,55		
- Iraup.jak.kontr. Lanaldi osoa	%6,70	%1,60	%8,30		
- Iraup.jak.kontr. Lanaldi partziala	%7,70	%1,60	%9,30		
- Iraup.jak.kontr. ABLE-ETT	%7,70	%1,60	%9,30		
SOLD. BERR. FONDOA (*)	%0,40	-	%0,40		
LANBIDE HEZIKETA	%0,60	%0,10	%0,70		
Lan Istripuak eta Lanbide Gaixotasunak	% tauletako epigrafearen arabera	-	% tauletako epigrafe arabera	según epígrafe – Desde el 1,20 al 8,95-	
GUZTIRA					

(*) Kooperatibak salbuetsita daude horren kotizaziotik beren bazkide langileentzat edo laneko bazkideentzat

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

Ikus daitekeenez, kotizazio- eta estaldura-desberdintasunak Erregimen Bereziaren eta Erregimen Orokorraren artean funtsezkoak dira eta sustatzaileek balioetsi egin beharko dituzte bat edo bestea aukeratzeko orduan, aldagai guztiak kontuan izanik erabakirik egokiena hartu ahal izateko.

Gainera, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean, lanaldi partzialeko kontratuak benetako lan-denboraren arabera kalkulaturiko kuotengatik kotizatzen dute, eta horrek zenbait kasutan dezente arindu ditzake kostuak, zeren eta bazkide langileek edo lan-bazkideek lanaldi partziala baldin balute Kooperatiban eta honek bere Estatutu Sozialetan Autonomoen Erregimen Berezia aukeratu izan balu, Erregimen horretan ezarritako gutxieneko oinarriagatik kotizatu beharko bailukete, gutxienez.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

VIII. laguntza publikoak

KOOPERATIBENTZAKO LAGUNTZA ESPEZIFIKOAK

Kooperatibak sortzeko dauden laguntzen artean, preziatuena eta ezagunena ziur asko, Langabeziagatiko Prestazioa izango da ordainketa bakarreko modalitatean, prestazio horietarako eskubidea duten pertsonentzat. Gainera, urtero, Herri Administrazioek eta, batez ere, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak, Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren bidez, Gizarte Ekonomiako Sozietateak sortzen laguntzeko programa espezifikoak taxutzen dituzte, horien artean daudelarik kooperatibak eta hauen bazkideak.

Honela, 2003ko ekitaldian ondorengo Aginduak promulgatu dira:

- Agindua, 2003ko maiatzaren 21ekoa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, **enplegu-sorgune berrietan bilduriko enpresak sortu eta sendotzeko laguntzak** arautzen dituena (EHAA, 2003ko ekainaren 2koa)

- Agindua, 2003ko maiatzaren 21ekoa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, **Gizarte Ekonomiako enpresetan bazkideak sartzeko laguntzak** arautzen dituena (EHAA, 2003ko ekainaren 2koa)

- Agindua, 2003ko maiatzaren 21ekoa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko **gizarte-ekonomiako enpresetan laguntza teknikoa emateko diru-laguntzak** arautzen dituena (EHAA, 2003ko ekainaren 2koa)

- Agindua, 2003ko maiatzaren 21ekoa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuarena, **enpresetan langileen partaidetza bultzatzeko laguntzak** ezartzen dituena (EHAA, 2003ko ekainaren 2koa).

Ondoren **Langabeziagatiko Prestazioen Kapitalizazioa** aztertuko dugu, **Ordainketa Bakarreko modalitatean**:

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

Araudia

- 1044/1985 E.D., ekainaren 19koa, langabeziako prestazioaren ordainketa, ordainketa bakarreko modalitatean, bere zenbatekoaren egungo balioagatik, enplegua sustatzeko neurri gisa (BOE, 157. zka, 1985eko uztailaren 2koa)

- Abenduaren 12ko 45/2002 Legearen laugarren xedapen iragankorra, langabeziako babes-sistema aldatzeko eta lanerako gaitasuna hobetzeko premiazko neurriena (BOE, 2002/12/13)

- 2/2003 Errege Lege Dekretuaren Azken Hirugarren Xedapena, apirilaren 25ekoa, ekonomia berritzeko neurriei buruzkoa (BOE 2003/04/26).

Onuradunak

Langabeziako prestazioen titularrak, ordaindutakoaren araberako prestazioetan, gutxienez hiru hileko geratzen bazaizkie hartzeko eta kooperatibara sartzen badira, edota bazkide langile edo lan-bazkide gisa kooperatiba eratzen badute denbora mugagabez, lanaldi osorako edo lanaldi partzialerako. Ezin da aurrez kontratu-loturarik izan —ez lan- eta ez sozietate-loturarik— Kooperatibarekin hamabi hilabetekoa baino luzeagorik.

Laguntza

Langabeziako prestazioagatik dagozkion hartzeko guztiak jartzen dira pertsonaren esku ordainketa bakarrean, betiere zenbateko hori Kooperatibak eskatzen duen nahitaezko ekarpenaren berdina edo txikiagoa baldin bada. Hartu beharreko kopurua nahitaezko ekarpenak baino handiagoa bada, aukera dago diferentzia INEMek hiru hilero bazkide kotizatzaileari ordaintzeko bazkide langileak Gizarte Segurantzari ordaindu beharreko kotizazioan laguntzeko, bazkide horrek kotizazio-agiriak aurkeztu ondoren INEMi.

Betebeharrak

a. Kooperatiba Elkarte bat eratzeko asmoa izatea, edo lehendik eratutako batean sartzea bazkide langile gisa; berria baldin bada, Estatutuen

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

proiektua eta Kooperatiba-enpresaren proiektua (bideragarritasun-plana) aurkeztu behar ditu.

b. Kopuru horiek Kooperatiban nahitaezko ekarpen gisa sartzea.
c. Bera Kooperatiban bazkide langile edo lan-bazkide mugagabe gisa sartzea, lanaldi osorako edo partzialerako.

Eskabidea

Prestazioaren onuradun den pertsonak izena emanda duen INEMeko bulegoan.

Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiak 50/2003 FORU DEKRETUA promulgatu zuen, martxoaren 12koa, Enplegu eta Prestakuntza Departamentuarena, 2003. urtean Enplegua bultzatzeko «Lanera» Programa arautzen duena (BAO-BOB, 2003/03/28).

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak baditu laguntza-neurriak Kooperatiba Elkarteetan enplegua bultzatzeko ondorengo hauetan sartzen diren kasuetarako: 283/2000 Dekretua, abenduaren 26koa (EHAA 2000/12/30); 319/2002 Dekretua, abenduaren 30ekoa (EHAA, 2002/12/31), 283/2000 Dekretua aldatzen duena; eta 2003ko otsailaren 26ko Agindua (EHAA, 2003/03/26), 283/2000 Dekretuan —319/2002 Dekretuak aldaturikoan— jasotako diru-laguntzak 2003. urtean indarrean egongo direla argitaratzeko dena.

BERARIAZKOAK EZ DIREN LAGUNTZAK KOOPERATIBENTZAT

Eusko Jaurlaritzak eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek enpresentzako araudiak promulgatzen dituzte urtero, komunak merkataritza-erakundeentzat eta Kooperatibentzat, ondorengoak azpimarratuz:

EUSKO JAURLARITZAREN LAGUNTZAK

- Enplegua bultzatzeko neurriak (Txandako lan-kontratua)
  - 267/99 Dekretua, ekainaren 29koa (EHAA 99/07/16)
  - 441/99 Dekretua, abenduaren 21ekoa (EHAA 99/12/31)
  - Agindua, 2003ko otsailaren 26koa (EHAA 03/03/26)

- Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak
  - 177/2002 Dekretua, uztailaren 16koa (EHAA 2002/08/12)

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

- Agindua, 2003ko otsailaren 26koa (EHAA 2003/03/26)

- Entitate pribatuetan eta zuzenbide publikoko korporazioetan euskara planak garatzeko diru-laguntzak.
  - Agindua, 2003ko uztailaren 29koa (EHAA 03/08/18)

- Industria-sektorean inbertsioak egiteko finantza-laguntzen programa (AFI)
  - Agindua, 2003ko maiatzaren 16koa (EHAA, 2003/06/16)
  - Ebazpena, 2003ko ekainaren 17koa (EHAA, 2003/06/17)
  - Ebazpena, 2003ko uztailaren 2koa (EHAA, 2003/07/11)

- Konekta Zaitez Mikroenpresak
  - KONEKTA ZAITEZ MIKROENPRESAK programari buruzko iragarkia (EHAA, 2002/09/12), laguntzeko neurri batzuk ezartzen dira, mikroenpresetan Informazio eta Komunikazio Teknologiak (TIC) txertatzea sustatzeko.

- HOBEKI DIGITALA Programa: Honen bitartez laguntza neurriak ezartzen dira Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia berriak (TIC) enpresetan sar daitezen.
  - Iragarkia, 2002ko ekainaren 21eko EHAAn argitaratua.

- Kontratazio mugagabearentzako laguntzak
  - 2/98 Dekretua, urtarrilaren 29koa (EHAA 1998/01/26)
  - Agindua, 2003ko otsailaren 12koa (EHAA 2003/03/11)

elkar-lan

- Lan-denbora banatzeko laguntzak
  - 232/96 Dekretua, urriaren 1ekoa (EHAA 96/10/18)
  - 13/98 Dekretua, otsailaren 3koa (EHAA 98/02/10)
  - Agindua, 2003ko otsailaren 19koa (EHAA 03/03/20)

- Enpresa txikietako makineria berritzeko diru-laguntzak, lehendik dagoen makineria txatar bihurtuz eta laneko segurtasun eta osasuneko arauetara egokituko den makineriak hura ordezkatuz.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

- Ebazpena, 2003ko uztailaren 30ekoa, OSALANeko Zuzendari Nagusiarena (EHAA 2003/08/14).

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

- Enpresa-ekimen berrien sustapena
  - 25/2003 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, 2003. urterako SUSTATU Programa arautzen duena.
  - 2003. urtean Bizkaiko enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzea 27/2003 Foru Dekretua, otsailaren 25ekoa, ERABERRITU Programa arautzen duena.

- Industri pabilioiak eta bulego-moduluak
  - 3/2003 Foru Dekretua, urtarrilaren 21ekoa, 2003. urterako Elkartegiak programa arautzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

- e-Gipuzkoa 2005 egitaraua: E-ETEak (Enpresa txiki eta ertainak ekonomia digitalean sartzea)
  - 17/2003 Foru Dekretua, apirilaren 25ekoa, (GAO-BOG 2003/05/21).

- TXEKIN Programa (Pertsona ekintzaileei beren enpresak sortzen laguntzeko sistema, aholkulari homologatuei ordaintzeko tresna batean oinarritua)
  - 22/2003 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, ekimen handiko pertsonei aholkularitza eta laguntza teknikoa eskaintzeko «Txekin» programa arautzen duena (GAO-BOG 03/03/28)

- Internazionalizazio Programa
  - 2003. urterako nazioarteko egitarauaren laguntzen deialdia (Iragarkia, GAO-BOG 2003/03/05)

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

IX. Euskadiko Lan Elkartuko Kooperatiben Federazioa

1. Zer da?

Federazioa Euskal Autonomia Erkidegoko lan Elkartuko Kooperatiben elkartea da, kooperatiba-elkarte diren aldetik beren interesak defenditu eta sustatzeko.

2. Eremua

- Euskal Autonomia Erkidegoa
- Eremu Sektoriala
  - Bigarren sektorea edo industriala, zentzu zabalean
  - Hirugarren sektorea edo zerbitzuena

3. Funtsezko helburuak:

Oso era zabalean Federazioaren Estatutu Sozialetako 3. artikuluan agertzen da zerrenda. Dena den, eta multzoka jarrita, esan dezakegu Federazioak funtsezko 7 helburu hauek dituela:

a. Lan elkartuko kooperatibismoaren ordezkaritza instituzionala herri-agintarien aurrean, enpresari dagozkion gai guztietan: lehiakortasuna, prestakuntza, enplegua, zerga-arloa, gizarte-segurantza, etab.

b. Enpresa-lankidetza eta lankidetza sektorialerako aukerak bilatzea, elkartutako kooperatiben artean, batez ere.

c. Tamaina txikiko Kooperatibei kudeaketa-tresnak eskaintzea.

d. Prestakuntza teknikoa (erdi-mailako langile eta zuzendarientzat) nahiz kooperatiboa (bazkideentzat oro har, kooperatiban duten eginkizun teknikoa gorabehera).

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

e. Lan Elkartuko Kooperatiben gabeziak estaltzeko egokiak izan litezkeen erakunde edo jarduerak bultzatzea.

f. Kooperatiba-sustapena, enpresa-ekimen berriak era kooperatiboan sortu edo sustatzera bideratutako ekintza-multzoa.

g. Zerbitzu-prestazioa, batez ere, zerbitzu juridikoak.

4. Federazioaren printzipioak

Edozein Federaziori edo elkarteri dagozkionak:

a. Kooperatiba federatuetako bakoitzaren autonomia errespetatzea. Integrazioa askatasunean egiten da.
b. Elkartuen interesen zerbitzua eta defentsa.
c. Organo federalen kudeaketa demokratikoa.

5. Parte hartzen dueneko erakundeak.

Goragoko zenbait erakundetan sartuta dago Federazioa:

a. Euskal Autonomia Erkidegoan: Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua (EKGK-CSCE) eta Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa (EKK-CCE)
b. Espainiako Estatuan: Lan Elkartuko Kooperatiben Espainiako Konfederazioa (COCETA) eta Gizarte Ekonomiako Enpresen Espainiako Konfederazioa (CEPES)
c. Nazioartean: Lan Elkartuko langileen eta Eskulangileen Kooperatiben Nazioarteko Batzordea (CICOPA) eta Nazioarteko Kooperatiba Aliantza (NKA-ACI)

6. Errolda Soziala

2003ko abenduaren 31n

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
Kooperatibak	59	150	193	402
Lanpostuak	1.676	6.794	19.403	28.177

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

X. Elkar-Lan S. Coop., kooperatiba-elkarteak sustatzeko sozietatea

1. ZER DA ELKAR-LAN, S. COOP.?

Bigarren mailako Kooperatiba bat da; bere azken helburua enpresa kooperatiboak sustatzea da eta, ondorioz, enplegu kooperatiboa eta ekonomiaren eta gizartearen garapena bultzatzea.

Elkar-Lan, S. Coop. kooperatiba bat martxan jartzeko nahia edo interesa duten gizabanako edo taldeen eskura dago, eta doako zerbitzua da, kalitatezkoa eta espezializatua.

Bazkide sortzaileak honako hauek dira:

EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA

2. ZERBITZUAK:

- Kooperatiba-elkarte gisa antolatu nahi diren enpresa-proiektu guztietan orientabideak eta aholkularitza ematea.
- Proiektuaren bideragarritasuna aztertzea.
- Prestakuntza kooperatiboa.
- Kooperatiba-proiektuen sustatzaileei laguntza pertsonalizatua eta profesionala ematea kooperatiba martxan jarri arte.
- Diru-laguntza eta bestelako laguntzei buruzko informazioa.
- Kooperatibak eratzea.
- Kooperatiba gisa eratu ondorengo lehen urtean tutoretza/jarraipena egitea.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

ZERBITZU HAUEK GUZTIAK DOAKOAK DIRA

3. NORI ZUZENDUTA DAUDE ZERBITZUAK?

- Sustatzaileei
- Aholkulariei
- Kooperatiba bihurtu nahi duten enpresa txiki eta ertainei
- Beren Kooperatiba sortu nahi duten besteren konturako langileei
- Beren jarduera dibertsifikatzeko beste kooperatiba batzuk sortu nahi dituzten kooperatibei
- Enpresak Sustatzeko Zentroei eta Toki Garapeneko Agentziei
- Kooperatiba gisa martxan jarri nahi dituzten ekimenak dauzkaten taldeei
- EAEko Administrazio eta Herri Erakunde guztiei.

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop

XII. koopeartibei buruzko helbide interesgarriak

1. EUSKADIKO LAN ELKARTUKO KOOPERATIBEN FEDERAZIOA

Reyes de Navarra kalea, 51
01013 GASTEIZ
Tfnoa.: 945 12 20 50
Faxa: (945) 25 39 59
Web orria: www.euskoop.org

2. ELKAR-LAN, S. COOP. (Kooperatiben Sustapenerako Elkartea)

Hurtado de Amézaga kalea, 28 – 1ª Ezkerra.
48008 BILBO
Tfnoa.: 944 703 760
Faxa: 944 703 761
Web orria: www.elkarlan.coop

3. JUSTIZIA, ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

Web orria: www.euskadi.net

GIZARTE EKONOMIAKO ZUZENDARITZA
(Euskadiko Kooperatiben Erregistroa)
Donostia kalea, 1 LAKUA
01010 GASTEIZ
Tlfnoa. 945 019 083
Faxa: 945 019 109

4. OINARRI, S.G.R.

Arabako Teknologi Parkea, E-5 eraikina
01510 MIÑAO (GASTEIZ)
Tfnoa.: 945 298 280
Faxa: 945 298136
Web orria: www.oinarri.es

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO. www.elkarlan.coop
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761. elkarlan@elkarlan.coop

5. EUSKADIKO KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA

Reyes de Navarra kalea, 51
01013 GASTEIZ
Tfnoa.: 945 12 20 53
Faxa: (945) 25 39 59
Web orria: www.confeuskadi.com

6. EUSKADIKO KOOPERATIBEN GOREN KONTSEILUA

Reyes de Navarra kalea, 51
01013 GASTEIZ
Tfnoa.: 945 12 11 55
Faxa: (945) 25 39 59
Web orria: www.csce-ekgk.coop

© elkar-lan s. coop.

Hurtado de Amezaga kalea, 28-1º ezk. 48008 BILBAO.
Telefonoa: 944 703 760. Faxa: 944 703 761.
www.elkarlan.coop
elkarlan@elkarlan.coop